

Patxi Galé

EUSKAL HERRIKO UR-MUGA: GAILURREZ GAILUR ZALANTZAN ZAMALKA

EUSKAL Herriko azalera osoa irudikatzen duen mapa, aldaerak aldaera, jende guztiak dauka noiz edo behin ikusita. Edonork irudika litzake paper baten gainean, zorioneko zazpi probintzien mugak gutxi gora behera marraturik. Arreta handiagoz Euskal Herriko geografia fisikoa behatu nahi izan duenak, mendigune garrantzitsuenak non dauden ere kokatzeko gauza izan daiteke, azkenengo urteetan sestra-kurba eta koloretzatutako altimetria dotoreak daramatzaten argitalpenak plazartu baitira han eta hemen. Sestra kurbak irakurrita erliebea buruan irudikatzeko ahalmena dutenak ordea, gutxiago izango dira seguru asko. Eta gure aztergai hau hain zuzen, marra horiek islatzen duten egiazko erliebea irudikatu eta arretaz aztertzearen ondorioa da.


Asko nahiz gutxi, gehienok pairatu behar izan dugu noiz edo noiz, zorioneko ur-muga horren gaineko irakasgairik. Pupitrearen alde batean zein bestean, eta irakaslearen arrakasta handiagoz zein txikiagoz, mendizaleok eskolatik beretik izan dugu geure buruan lerro imaginario horren isladak irudikatzeko aukera. Mendian ibiltzen ohitua denak badu gainera, gorago aipatu ditugun sestra-kurben esanahiaren funtsa ondo bereganatua eta horrenbestez, haiek irakurrita, lur azalak egiten dituen zimurrak eta gora-beherak (letraz-letrako adieraz) imajinatzen ditu erraz.

Euskal Herriaren forma nolakoa den ikertzen hasteko, bada ohartu barik ezin utz genezakeen detaile inportante bar, eskala handiko edozein mapatan errepara daitekeena: Erliebeak egiten dituen gora behera horiek, azalaren gainean jausten diren

*Egizute nerekin
aberi bidea.
Bildu dezagun nun-nai
Asaben lorea.
Ta gaurdanik goritu
Gure sukaldea.
Ni nor naizen? Asmatu?
Euskal Pi-kundea.*

Xabier Lizardi


■ Hiru Erregeen Mahaia neguan, ur-mugaren sabaia eta hasiera (1. etapa)






euri-urak alde bitara bideratzen dituzte ezinbestez. Bide luzeagoa nahiz laburragoa eginik, Euskal Herri gainean isuritako urak Bizkai-ko Golkora ala Ebro ibaira joaten dira (geroago, beraz, Mediterraneo itsasora). Beste irteerarik ez dago. Eta hori, Euskal Herriak bi hegaletako teilatu baten antza duelako. Hegal biak banatzen dituen gandorra ekialdetik Pirinio mendikateak osatzen duen horretatik datorkigu eta mendebalderantz Kantauri mendilerroa osatzen duen hartarantz jarraitzen du. Hortik datorkio gure zori-
neko marra horri izena: Euskal Herriko ur-muga. (1. irudia)


1. IRUDIA




Irudizko marra horren ibilbidea zehazki aztertzen (edo ibiltzen) hasi aurretik, norberak pentsa dezake seguraski lur azal horretan dautzan mendirik garaienetatik pasatuko dela halabeharrez. Baina ez da beti hala gertatzen. Are gehiago, zenbait kasutan zeharkatzen duen aurkintza bateko puntu garaienetik hurbil pasa daiteke ur-muga, gailur erakargarri bat alde batera uzten duela (Harsüdürra, Okoro edo Gorbeia kasu). Eta hori hala da, erliebeak egiten dituen zimurrek ura alde batera edo bestera desbidera dezakeelako, mendi-adar garrantzitsu hauetatik kanpo ere gailur altuak daudelarik. Arrazoi beragatik, gure ur-mugatik urrun oso mendigune garai eta garrantzitsuak aurki ditzakegu: Illon, Leire, Izko, Itzaga, Alaitz, Erreniaga, Andimendi, Urbasa, Entzia, Gasteizko mendiak, Toloño... hegoaldetik eta Ernio, Izarraitz, Oiz, Ordunte gehiena... iparraldetik. (2. irudia)

Hau hala izanik ere, esan gabe doa, jakina, ur-mugak mendi batzuen gandorra jarraitzen duela nahi eta ez, teilatu baten habe nagusiak egiten duen modura. Ondorioz, gure lerro horrek zenbait mendigunetan zehar abiatuko da maparen alde batetik bestera, betiere ur isuriak banatzen dituen marra hori bilatzen duelarik. Salbuespenik ia batere gabe, mendigune batetik bestera pasatzean, errepidea duen mendate bat zeharkatu beharko dugu. Ordea, gure martxa ibilgailuen ibilbidearen aurkakoa izango da: errepideek isuralde (teilatu hegal) batetik bestera pasatzeko eginak dira eta guk, isuralde edo teilatu hegal horietan sartu gabe ibili nahiko





3. IRUDIA




■ Aizkorri mendilerroan ur-muga zorrotz ederra (12. etapa)

UR-MUGA:
MENDIGUNEAK
ETA
MENDATEAK

■ Iruatxeta (Ipizte) haitz harroa Zabalanditik (14. etapa)

2. IRUDIA



UR-MUGAKO ETAPAK
ETA LERROZ KANPOKO
MENDIGUNEAK

dugu, haren arteko gandorra gailurrez gailur ibilita.

Ekialdetik mendebaldera honako mendizerra hauek ibili behar dira ur-muga bere osotasunean ezagutzeko: Euskal Pirinioa, Kintoa, Iregorrena, Aralar, Altxania, Aizkorri, Urkilla, Elgea, Anboto, Gorbeia, Gorobel... Bistan da guztiak direla Euskal Herriko mendigune garrantzitsuak, ez ordea garrantzitsu bakarrak. Bidea egin ahala, errepideak zeharkatuko ditugun mendate batzuk izango dira Eraize, Iturzaeta, Bagargi, Burdinkurutzeta, Surzai, Irua, Errozate, Ibañeta, Urkiaga, Artesiaga, Belate, Gorostieta, Uitz, Arrite, Azpirotz, Lizarrusti, Etxegarate, Otsaurte, Arlaban, Kurtzeta, Urkiola, Zumeltza, Barazar, Altube, Urduña eta Angulo. Oso ariketa interesgarria litzateke mendigune eta mendate hauek mapa zehatz batean kokatzea. Mendate eta mendigune kontzeptuak argi edukiz gero, jardun soil horrek datu esanguratsu ugariak emango lizkiguke Euskal Herriko ur-mugaz eta erliebe nagusiaz. (3. irudia)

Pasa den 2001. urtean Bilboko gure Aldatz Gora mendialdeak bere 75. urteurrena ospatu zuen. Ez dira asko adin honetara ailegatu diren elkarte mendizaleak. Halako gertakariaren garrantziaz oharturik, taldeko zenbait bazkidek aspalditik buruan zerabilten egitasmoa gauatzeko aukera egokia ikusi zuten: Euskal Herriko bizkarrezurra den ur-muga hori, gure gailur ederrenak osatzen duten mendiz mendiko gandor hori, oinez oso-osorik eta ahalbait zehatzekin ibiltzea. Eta taldeak egoitza Bilbon duenez gero, Ekialdetik hasiko ginen, Erronkari aldeko harrizko gailur latz haietan, apurka apurka etxerantz hurbilduz joango ginelarik.

Geure irtenaldi okasioaletan mendiak ezagutzeko joan garen heinean, irudi horiek errealtatearen zati batzuekin osatu, gauzatu eta irudi huts izateari utziz joan dira. Ordea ibilaldi osoa, jarraian eta zehatzasunez ibiltzea, infraestruturara minimo bat behar duen egitasmoa da. Eta horixe eskaini zigun Aldatz Gora mendi elkarteak: hiru urtetan zehar ur-muga osatzen duten hemezortzi irtenaldien antolakuntza, 1998ko udazkenean hasi eta 2001eko udaberrian ibilbide osoa amaitzeko parada.

Ibilaldi horietan, epe luzeko egitasmo guztietan ohi legez, jende askok hartu du parte. Batzuek hasi bai baina bizitzaren gorabeherak bultzaturik, bertan behera utzi behar izan zuten han edo hemen. Beste batzuek oso osorik egiteko premiari ikusi ez eta zenbait zati egitera etorri ziren bakarrik. Gutxi batzuek azkenik, ibilaldi osoa eta ordenatua burutu dute, irtenaldi ofizialetara huts egin arren, falta izan dituzten etapak beren kabuz ibilita.

Hasiera zaila izan zuen ibilaldiak. Larrako etaparen erliebe malkartsuak dituen zailtasunak eguraldi aproposa eta egun luzeak eskatzen ditu. Hirugarren saioan baizik ezin izan genion ekin, eta behin abiatuta, jadanik egunak laburtzen hasiak zirela-eta, gauez heldu ginen helmugara. Kostata hasi zen egitasmoak, ildo beretik jarraitu zuen eta etapa ugarietan euria izan genuen lagun. Ohituta, ur-muga ondo ikuskatzeko euria beharrezkoa ei da-eta, harritu ere egiten ginen eguzkiak paseialdia epeltzen zigunean... Azkenengo etapari, Angulo mendatera ailegatu ginenean, interes handiko proiektu eskerga bat burutu izanaren pozkariora bolandera eta guzti ospatu genuen hango tunelaren ondoan.

Ibilaldiaren hasierako proiektua prestatzeko lanak berak ere erronkarik nahikoa izan ziren. Abenturarik zer edo zer dauka mapetan nabegatze horrek: kartografia desberdinetan burua abiatu eta mahaia orri despilatuz gainezka eduki arte, ametsetan lerroa irudikatzen eta zehazten jardun, desbideratu garena konturatu, atzera itzuli beharra, oharrak eta oharrak pilatu eta azkenik, ibilbidearen diseinu destilatua papereratu. Kasik ibiltzea azain neko-soa. Hala ere, mapek eta despisteez engainaturik, hasierako ibilbide hori zuzendu beharra izan dugu abian aritu garen bitarte horretan. Behaketa zuzenak kartografiak ematen ez dituen (edo gaizki ematen dituen) datu asko ekarri dizkigu eta zuzenketa batzuk aplikatu dizkiogu hasierako ibilbide-egitasmo hari. Aurkintza guztia ez baitira nahi genukeen bezain gardenak eta erliebearen anbigutasunak behin baino gehiagotan akatsera eraman baikaitzake, zenbait ohar egingo ditugu ibilaldia zehazki burutu nahi duenarentzat lagungarri izango direlakoan.

Ibilbidea lerro bakarria da eta beraz, nahi den tokitik nahi den tokira egin daiteke. Ordea eguneko (batzuetan egun luze) etapak diseinatu nahi baditugu pausaleku egokiak aurkitzeko moduan, geureak honako hauek izan ziren:

1. LARRA: (Linza - Col de Linza - Hoya la Solana -) Hiru Erregeen Mahaia (2444) - Col de Lhurs - col des Ourtets / de Lescun - Col de Insole / Anaye - Añelarra (2358) - Col le Pourtet - Sierra Longa - Zanpori (1730) - Eraize lepoa / Puerto Grande (- Belaguako aterpea).

Oso etapa malkartsua. 14 (+ 7) km, 9:35.

Ur-muga osoko etaparik malkartsuena da eta gainera, Hiru Erregeen Mahaia igotzeko behar den denbora gaineratu behar zaio. Terrenoaren zailtasun horrengatik, oso da komenigarria egunak luzeak diren garai batean abiatzea eta ia ezinbestekoa lainorik gabe burutzea, zeren tarte zailetan ez baitugu bide argirik izango eta inguruko mendi eta aurkintza ezagunek bakarrik lagunduko baitigute norabide zuzena bilatzen. Nafarroan sartzen gareneko Hiru Erregeen Mahaia tontorra dugu, noski, ur-mugako ibilaldiaren punturik altuena, Euskal Herriko mendi garaiena delako. Hemendik Anaye lepora joan eta handik Añelarra tontorrera igo behar da. Karst izugarria da aurkintza hau, baina ur-muga den gandorra identifikatzea ez da horren zaila. Egia esan, ondo segituko dugu baldin ekialdera begira dauden maldetara hurbiltzen saiatzen bagara, beti ere hegaletara jaitsi barik. Benetan ezbaizkoak diren aurkintzak Belaguara begira daudenak dira eta hortaz, besteak izan behar ditugu erreferentzia. Anaye lepotik Añelarra tontorrera igotzeko tximinia izkutatu eta itxura txarreko bat da gakoa. Hala ere, hartan gora igotzea ez da azpitik ematen duen bezain zail eta eskuak apur bat erabilia azkar pasatzen da zati ezeroso bakarra. Gainerakoan, igoera tente eta nekoso bat baizik ez zaigu geratzen. Añelarrerainoko bidea ezerosoa bada, aurreragokoa are zailago bihurtzen da. Honenbestez, batean baino gehiagotan pentsatu behar dugu hemendik aurrera abiatzera deliberatu baino lehen. Hala eginez gero, Añelarretik Larran barna sartu eta Sierra Longa ondo bilatu eta segitzea da arazoa. Horretarako Frantzia eta Espainia estatuen arteko muga seinalatzen duten mugarriak izango dira hasieran erreferentzia baliagarria. Behin Sierra Longako gandorrean zamalka jarrita, berau segitzeko bidezidorrak aurkitzean datza asuntua. Hala helduko gara Zanpori azpiko lepora, jadanik Belaguako aterpe ezaguna begibistan dugula. Tontorrera eta Eraizera heltzea pentze eder erosoetatik paseatzea besterik ez da, gero errepidean behera aterpera ailegatzeko. Eraize izeneko lepo hau da, bestalde, Zuberoa ikutzen dugun lehenengo puntua.

Larrako harrizketan zehar gora eta behera (1 etapa)

Hillarrieta cromlech multzo ezaguna (4 etapa)



Aezkoa Hiriberriko Reka eteko garaia (4 etapa)





2. OTSOGORRI: Eraize lepoa / Puerto Grande - Lakora sur (1847) - Cortaplana (1777) - Arrakogoiti / Urdaite lepoa - Binbaleta (1758) - Kartxela (1982) - Belai lepoa - Belai (1771) - Sotalepoa - Barazea / Sardekagaina (1893) - Utururdineta lepoa - Otsogorrigaina (1923) - Otsogorritxipia (1794) - Elurrosoko lepoa - Gaztarria / Mulidoia (1732) - Bildotsarene lepoa - Betzula (1590) - Atxurterrigaina / Orbizkai (1660) - Iturzaeta mendatea.

Etapa luzea baina erosoia. 20 km, 8:25.

Aurrekoaren ostean, etapa hau pasealdi atsegin baten legez egingo dugu. Orohar hala bada ere, hasieran tarte malkartsu samar batzuk izango ditugu. Eraize lepotik aurrera, Lakora aldeko zatia muga-mugatik jarraitu nahi bada behintzat, igarobide batzuetan eskuak erabili behar dira. Arrakogoitira jaistean ere, amiltua den aurkintzaren bat aurkituko dugu eta gandor zehatza uztea izan daiteke gomendagarria, artaldeek urratutako zeharrak jarrai daitezke- elarik. Binbaleta eta Kartxelaren ondoren, Sardekagaina gailurrean aurkituko dugu pasaleku airosoen bat, gandor lerdenak goimendiko giroa ematen diolarik ibilbideari. Aurrerantzean, zenbait aldapa nekoso aurkituko dugu Otsogorrigaina eta Gaztarria gailurak gaingaitzeko, baina orokorrean terreno belartsu erosoan ibiltzeko parada izango dugu. Luzeegia izan ez arren, orduak konturatu ere gabe joango zaizkigu eta seguraski egunaren amaieran ibilbidearen nekea sentituko dugu.

3. ORHI: Iturzaeta mendatea - Orhitxipia (1926) - Orhi (2017) - Alupiña gailur-lerroa - Zazpigaina (1765) - Thartako lepoa - Thartapunta (1521) - Millagate gailur-lerroa - Hodeizugaina (1613) - Sensibile lepoa - Pellüsagaina (1594) - Mehatze lepoa - Bagargi lepoa - Ira-tzabaleta lepoa - (Harsüdürä / Escaliers (1472) eskuinetara uzten du ur-mugak) - Lepoxipia - Arthanolatze (1530) - Burkidoi lepoa - Sardeka (1440) - Mendibel (1411) - Burdinkurutzeta lepoa.

Etapa luzexka baina erosoia. 21'5 km, 8:15.

Desmaila gehiegirik ez duen etapa hau aurrekoaren modukoa dugu. Iturzaeta mendatetik irten eta Orhi gailurra erdiesteko biderik erabiliena nahiz gandor zehatz airosoa segi dezakegu. Edozein modutan,

Orhi izango da etaparen punturik gorena eta handik aurrera malda handirik ez dugu aurkituko. Tontor honetatik Bizkarze aldera pasatzeko Alupiñako gandor zorrotza zeharkatu beharko dugu, ertzetik beretik egin nahi izatekotan, kontuz ibiltzeko zatiak dituen. Honen ostean, larre erosoetatik ibiliko gara gehienetan, Thartapunta izan ezik, bidezidorrez hornituak. Bagargi lepoa pasatu ondoren, Harsüdürreko mendilerroari ekingo diogu, Arthanolatze pasatu ondoren, Burkidoi lepoan irtengo gara Zuberoatik Nafarroa Behereko lurretan sartzeko. Ondoren Mendibel mendi eder eta erraza igo eta Burdinkurutzeta lepoan amaitzeko gutxi falta zaigu.

4. IRATI: Burdinkurutzeta lepoa - Saroberri (1338) - Surzai lepoa - Hilarrieta (1387) (Ur-mugak ez du erdiesten Okabe (1466) aurregailur nabaria, ezta gailurra ere) - Irau lepoa - Irau (1152) - Harlepoa - Aranohegi (1293) - Errozate (1345) - Errozate lepoa - 1213 kota (Ur-mugak ez du Mendizar (1323) gailurra erdiesten) - Ezkanda (1105) - Loigorri - Mendilatz (1337) - Azpegi lepoa (Orbaizetako ola).

Etapa hau luze samarra izateaz gainera, azkenengo zatia anbigua eta malkartsua du. 22 (+ 3'5) km, 7:55.

Burdinkurutzeta izeneko mendatetxotik Surzai lepoan osterera errepide asfaltatura heltzeko, Saroberri mendi ederra igotzea besterik ez dugu behar. Hemendik, Okaberako norabidea hartuko dugu hasieran, baina Hilarrietako cromlech ederrera helduta, desbideratu egingo gara Irau lepora jaisteko. Errepidetik tontorra igo eta osterera asfaltora jaitsiko gara beste aldeko lepotxora. Errepide txikia segituz nahiz beronen ezkerreko gandorretik Aranohegi gailurra helduko gara, handik Errozate tontorra eta lepo sakona erdiesteko. Jaitsiera bortitz honen ondoren, bizkar belartsuan abiatuko gara mendebalderantz Ezkanda pasatu eta Loigorri izeneko zelai anbiguoetara heltzeko. Pentze hauetan Orbaizeta eta Orion aldeko isuraldea ez dugu bistatik galdu behar eta hala, Mendilatz ekialdeko pagadietan sartuko gara. Zati honetan, erliebe malkartsuak eta ikuspenik ezak zaildu egingo dute ibilbidea eta ur-mugaren norabide zehatzaren identifikazioa. Hala ere, beti mendebalderantz igotzen garelarik, tontorra lortuko dugu. Goialdea

oraindik oihantsua den arren, berehala irtengo gara belardietara eta azkar helduko Azpegi lepoko uraskara.

5. ORREAGA: (Orbaizetako ola -) Azpegi lepoa - Urkulu (1419) - Arnoztegi lepoa - Txangoa (1471) - Elizatzare lepoa - Menditxipi (1381) - Astobizkar (1506) - Garaziko lepoa - Iralepo (1282) - Ibañeta mendatea.

Etapa laburra eta eroso. 11 (+ 4) km, 4:35.

Azpegiko lepoan hasi eta pentze tenteetan gora Urkuluko dorre famaturantz abiatuko gara. Esan behar da tontorra ez dagoela zehazki dorre ezagunaren leku berean, mapek eta arretazko behaketak erakusten duten legez. Edonola ere, dorretik pasatu eta kontrako malda garbiari ekingo diogu Arnoztegi lepora jaisteko. Bizkar belartsu mantsoa segituko dugu eta hurrengo gailurrean Txangoara abiatzen den ezkerreko lerroan abiatuko gara. Etengabe hegoaldean Ortzantzurietako malda ikusiko dugularik, Astobizkar tontor legendarioa igo eta Ibañetara jaitsiko gara pista jarraituz nahiz aldapa ez hain erosoetatik ur-mugaren gandorra bilatuz.

6. KINTOA: Ibañeta mendatea - Girizu (1279) - Trona lepoa - Trona (1218) - Lindus lepoa - Lindus (1220) - Pilotasoro lepoa - Ataloiti lepoa - Bustarkomendi (1157) - Aldaparri (1216) - Aldaparri lepoa - Mendiaundi (1218) - Txasperro (1185) - Beraskoain lepoa - Sorolepo (1164) - Sorolepo lepoa - Beordegi (1162) - Aztakari (1003) - Aztakari lepoa - Iturrunburu (1300) - Adatun lepoa - Adi (1458) - Gorostibizkar (1198) - Esnezelaieta (1127) - Larrain lepoa - Kaskail-tza (1025) - Urkiaga mendatea.

Etapa luzea baina eroso. Igoera gogorra amaieran. 19 km, 8:00.

Ibañetako errepidetik abiatu eta Girizuko pentze maldatsuei ekingo diegu zuzenean. Tontorretik Trona lepora jaisteko kontuz ibili beharra dago, basoan sartuta norabidea galdu eta Auritzerantz desbideratzea oso delako akats erraza. Trona aldean gailurreria lortuta, ez dugu zailtasunik aurkituko apurka apurka Lindus aldera hurbiltzeko. Lindus tontorrean ur-mugak utzi egiten du Iparraldearekiko muga eta ez da ostera ere hartara hurbilduko, jada Nafarroa Garaian barneratuko delarik. Hemendik aurrera, mapak lagunduko gaitu gehienbat, zeren bizkar belartsu mantsoak baizik ez baitugu aurkituko, baina arretaz erabaki behar da zeinetatik abiatu Urepele nahiz Aurizperri aldera jaitsi nahi ez badugu behintzat. Hala, Baigorri eta Erroibar artean zamalka, etaparen errege den Adi tontorrera helduko gara azkenengo malda gogorrek gainditurik. Handik Urkiaga mendatera jaitea ez da gauza zaila, ohikoan legez, pista errazak jarraituz edo ur-muga zehatza ibiliz.

7. KINTOA-IREGORRENA: Urkiaga lepoa - Enekorri (1185) - Zagua lepoa - Otarra (1195) - Sorotipieta lepoa - Artsal (1229) - Urrizburu (1224) (Okoro (1259) gailur nagusia mendebaldean uzten du ur-mugak) - Bustalorro lepoa - Iparraldeko kaskoa (1199) - Oialegi lepoa - Tropa (1129) - Gurutzemeaka lepoa - Zagua (1149) - Larrakarte (1177) - Artesiaga lepoa - Egurtegi (1194) - Saioa (1419) - Okolin (1362) - Gartzaga lepoa - Gartzaga (1296) - Azkenatz lepoa - Azkenatz (1171) - Ermitako lepoa - Urdanbidegi (956) - Belate.

Etapa luzexka baina eroso. 19 km, 8:20.

Urkiaga lepoko errepidea utzi eta mendebalderantz abiatuko gara hasieran basoko pistatik eta berehala goiko larreetara ateraz. Bizkar nagusi mantsoak ez du zalantzarako biderik uzten, harik eta Urrizburu tontorrera heldu arte. Hemen ur-mugak iparralderantz jarraitzen du eta ez du norabidea aldatzen Iparraldeko kaskoa erdietsi arte. Tontor honetan iparralderantz banatzen den gailur-lerroa da apurka apurka mendebalderantz biratu eta Txingudira abiatzen den beste "muga"ren hegia. Guk ordea, mendebaldera abiatuko gara Oialegi lepo ezagunera jaisteko. Betiere pentzetan gora eta behera, helduko gara berehala Artesiaga izeneko lepora, Esteribar eta Baztan lotzen dituen errepidera alegia. Lepo honetatik etapako erraldoa igotzeko, pazientzia kontu hutsa da. Era honetan, aldapa larretsuetan gora beti, lortuko dugu Saioa tonto-



■ Uitzi ondoan garo-metak (9 etapa)



■ Erroldanen oroitarrria Ibañetan (5-6 etapa)

■ Ibañetako oroitarrria, erromesentzako otoitz-deia (5-6 etapak)



rrera igotzea. Okolin eta Gartzaga zapaltzea ere paseialdi atsegina da eta azkenik Ermitako lepoa eta Belate aldearen gainean kokatu-ko gara. 1004 m.ko kota honetatik, eta beste edonondik ere bai, Belateko zein puntutara jaitsi behar den jakitea, askatze zaileko korapiloa da. Mapa askotan begiratu eta zenbait konprobazio burututa, uste dugu praktikoena (eta agian errealityatik hurbilena ere) Urdanbidegi tontortxoia igo eta Erreagako benta izeneko puntura bajatzea dela, Belate mendateko goialdeko bide zuzenaren erdian. Ur-mugako tartetxo hau da definizio gaitzenekoa, zeren iparrerago eta hegoalderago baitaude posible diren beste ibilbide batzuk.

8. ULTZAMA: Belate - Gazteluzarra (942) - Illerrizokoa (973) - (Txaruta (1082) tontorra iparraldean uzten du ur-mugak -) Putzueta-ko gaina (1061) - Sanmiguelargain (1019) - Larremear (930) - Arlengo harria (978) - Uztakorta (936) - Uztakorta lepoa (Ur-mugak ez du erdiesten Soratxipi (1069) gailur hurbila iparraldean) - Ello lepoa - Erroberri (1018) - Urradi lepoa - Otedegi (991) - Gorostieta lepoa - Lertza (1005) - Isasti lepoa - Urkiko gaina (962) - Presaundi lepoa - Irumugarrieta / Arrepel (1044) - Intsusti lepoa - Begaña (1104) - Abarketa lepoa - Ozpegaña (1033) - Otsola lepoa (- Arrarats).

Oso etapa luzea baina, Belate salbu, argi samarra. 22'5 (+ 3'5) km, 10:05.

Belate mendatetik irteteko ibilbidea, aurreko etaparen amaieran hartutako erabakiaren ondorioa izango da. Gure kasuan, Erreagako bentatik abiatuko gara lehenengo gailurrean dagoen antenara doan pistan gora. Gazteluzarra erdietsita, mendebalderantz segituko dugu apurka apurka, aldapa serioerik aurkitu gabe eta gehi-etan pentze erosoetan aurrera. Putzueta-ko gaina igota, mendile-erroak pixkanaka baina argiro egiten du beherantz gailurrez gailur Uztakorta lepora heltzeko. Hemendik berriz ere altxatzen da eta aurrerantzean basoetan barna ibili beharko dugu. Era honetan, oztopo handirik gabe ailegatuko gara Saldiasetik Orokietara pasatzen den Gorostieta mendateko errepidera. Seguraski orain artekoaren ondorio, nekea sumatzen hasiko gara. Hala ere, mendate- tik Lertza tontorrera igo beharra dago eta antzeko paisaia oihan- tsuan abiatuko gara mendebalderantz Begaña tontor garrantzitsua

erdiesteko. Hemendik gertu eta zenbait kota txiki gaindituta, Otsola lepoa zelaierara helduko gara, Arrarastik Ezkurrara doan pista zeharkatzen dituen.

9. BASABURUA: (Arrarats -) Otsola lepoa - Ernaitzu (1197) - Ireber (1204) - Oringaña lepoa - Amotorre (1012) - Egiandi (894) - Egiestu (917) - Trentaingain (899) - Uitziko mendatea - Guratz (955) - Arrite mendatea - Goldanburu (905) - Amendior (902) - Mergelu (912) - Epele (869) - Atume (882) - Urgiñate (846) - Azpirotz mendatea

Etapa luzea baina ibilbide argikoa. 18'5 (+ 2'5) km, 8:10.

Otsola lepoan ibiltzen hasita, Ernaitzu gailurrera igo behar ei da lehenik, nahiz eta aurkintza anbiguo samarra izan. Badaezpada ere, tontorreraino heldu eta handik Ireber nagusira pasatzen den lerroa ibiliko dugu ondoren. "Parke" eolikoko helizeak bistan, ekialderantz abiatuko gara, aurkintzek zalantzarako aukera gutxi ematen dutelarik. Aurki Uitziko herria izango dugu begi aurrean eta apurka apurka helduko gara bere izeneko mendatera. Errepidea zeharkatu eta basoan barrena nahiz ira artean Guratz erpina erdietsiko dugu. Tontor honetan hegoaldera biratu eta Gorritira pasatzen den Arrite mendateko errepide asfaltatura irtengo gara minutu gutxi batzuetan. Gure ibilbideak orain hegoekialderako norabidea hartzen du, eskuinean Leitzarango autobide famatua dugularik, gandor ezerosoan aurrera joko dugu harik eta Mergelura iritsi arte. Aurrerago oraindik ere Atume eta Urgiñate gailurrak falta zaizkigu. Azken honetatik Azpirotz mendatera jaistea ere ez da lan erraza. Alde batetik malda bortitza eta biderik eza, eta bestetik bide zaharra eta gure artean autobidea egotea, etapa honen azkenengo oztopoak izango ditugu, trebezia apur batez gaindituko ditugunak.

10. ARALAR: Azpirotz mendatea - Igartza (668) - Irumuga lepoa - Albiasu - Izarrieta (917) - Kasamongo (1009) - Txurtxur (1063) - Gaztelu (1084) - Arriolatz (1176) - Uarrain (1221) - Alborta (1228) - Abateko lepoa - (Urdanotako) Tuturre (1282) - Pallardi (1290) - Illaun lepoa - Atallorbe (1275) - Mendiandi (1307) - Arruetalepoa - Beldarri (1404) - Intzako dorrea (1431) - Trikuarriko lepoa - Pagoeta (1271) - Errenaga (1288) - Desaomendi (1310) - Mandarrate (1256) - Aparain (1261) - Larretxiki - Irumuga (1246) - Iraioko zelaia - Alleko (1018) - Lizarrusti mendatea.

Oso etapa luzea eta aurkintza anbiguo ugariduna. 27 km, 9:35.

Azpirotz mendatetik Igartza tontorra erdiestea dugu lehenengo zailtasuna, zuhaitz artean paisaia leunean punturik altuena bilatzea ez baita beti lan erraza. Ondoren Araitz ibar ederrera begira dagoen balkoi berdera irtengo gara eta hartan zehar Albiasu herriaren goialdeko etxeen ondotik pasako gara, apurka apurka biratuz eta altuera lortuz, Malloak izango diren gailur-lerrora igo arte. Intzako dorrerako bidea ez da betiere argia. Tontor harritsuak, pentze leunak eta sakon ezbaizkoak aurkituko ditugu, non eta ur-muga zehatza zein ote den zalantza izango baitugu behin eta berriz. Nolanahi ere, Intzako dorrea erdietsiko dugu eta handik Trikuarriko lepora bajatuko, beti Arritzaga eta Unaga bana-tzen dituen gandorra jarraitu nahiz (arreta handia behar da). Ondoren, larreetan gora Errenaga gailurrera helduta, ezkerretara joko dugu Desaomendiara igotzeko, aurrean daukagun zelaia eskuinetara utziz. Lepora jaitsi eta baso zarratu eta ezeroso bat zeharkaturik, Guardetxetik datorren pista irtengo gara, Aparain eta Mandarrate tontorretara igotzeko. Allekora doan gailurreria segituko dugu eta Iraioko zelaian Lizarrustira doan bide zuzena ezkerretara laga eta gailurrera abiatuko gara aldapan gora. Tontorretik hegoaldera ikusten ditugun belardietara jaitsi eta aurkintza zalantza-koetan behera, nola edo hala ailegatuko gara Lizarrusti mendatera.

11. BURUNDA: Lizarrusti mendatea - Azko (836) - (Ur-mugak ekialdean gertu uzten du Txaradigorri (963) tontorra) - Mintegitxueta lepoa - Zelatamuño / Antatxola (952) - Zelata lepoa - Irumugeta (959) - Beitzeta (922) - Urkiri lepoa - Agiluzko punta (934) - Pagozabal (878) - Berraona lepoa - Intsusburu (946) - Beotegiko Murkoa - Trikuagi lepoa - Igartza (882) - Intzetako gaina (873) - Zartzamendi lepoa - Larreluze (885) - Muñagain (911) - Balankaleku (932) - Areatza / Izozkoa (983) - Etxegarate - Arlepo (712) - Larrezkondo (781) - Naizpe lepoa - Gazbide (757) - Aitzekunde (794) - Aitzabal (792) - Otsaurte mendatea.

Etapa laburra eta eroso. 19 km, 6:10.



■ Mugarriluze (13 etapa)



■ San Adrian aterpea eta Aizkorri alde (12 etapa)

Lizarrustitik basoan gora abiatuko gara gandorra segitu nahian, Azko gailurrera enkaramatzeko eskuak erabili beharreko malkar erraz batzuk aurkitu arte. Honen ondoren, paisaia leunago bihurtzen da baina zailagoa da ur-muga ondo bereiztea. Txaradigorri ondolik pasatu eta mendebalderantz abiatuko gara bizkarraren gainetik. Iru-mugeta gailurreko mugarri ederra atzean utzi eta, beti norabide berean, Berraonako galtzada ikusiko dugu izen bereko lepotik alde-rik alde mendizerra zeharkatzen. Aurrera segituz, modu erosoan helduko gara Etxegarate gainean dauden Balankaleku eta Areatza gailurretara. Esan beharra dago ur-mugak Areatza tontorreena ikutzen dituela lehenengoz Gipuzkoako lurak. Handik errepedera jaiste-a, minutu batzuetako kontua besterik ez da. Etxegarate mendate-tik Otsaurtera pasatzea ez da oso bide argia. Hasieran goiko larreeta-ara igo eta haietan zehar ezkerreko bizkarrera pasatuko gara. Bide zarratuetatik segituko dugu gandorra, Naizpe lepora bajatu eta pistetan gora jadanik Otsaurte gainean dauden Aitzekunde eta Aitzabal tontorrak erdietsi eta errepedera jaisteko.

12. AIZKORRI: Otsaurte mendatea - Añabaso (964) - Sancti Spiritus baseliza - Aiztontor Altua (1452) - Aizkorri (1528) - Aitzabal (1519) - Aketegi (1549) - Aitxuri (1551) - Iraule (1511) - Arbelaitz (1513) - Lugaitz lepoa - Kantuzulueta / Aizkorritxo (1427) - Andreaitz (1433) - Ezata lepoa - Aizkorgain / Urdajamentu (1371) - Azkiolaundi / Aizleor (1376) - Azkiolatxiki (1351) - Azkiola lepoa - Zulaiko (1359) - Arlabain / Kargalekueta (1361) - Adarraitz (1346) - Iferrutz lepoa - Enaitz (1300) - Gorostiagan (1286) - Elorrola lepoa (- Arantzazu).

Etapamalkartsua eta aurkintza ilun ugariduna. 15 (+ 4) km, 7:00.

Otsaurte mendateetik erraza da hasieran ur-mugak segitzen duen bizkarrera kokatzea. San Adrian aterpetik hurbil, pistetara hurbilduko gara eta tunelera abiatzen diren bide markatuak utziko ditugu berehala. Gure lerroa Aizkorri mendizerrara igotzen da zuzen Sancti Spiritus baselizaren ondolik pasatuz. Azken zatian, bidezidor eder eta balizatu batek laguntzen digu malkarra gainditzen. Laster aurkituko dugu igobide aruntetik datorren bide ederra eta metroak azkar irabaziz, Aizkorri tontorra erdietsiko dugu. Hemen-dik Arbelaitzera gailurrez gailur ibiliko gara, ahuntzen moduan gandorra zehazki segitu nahirik, edo Urbiako aldetik erosoago aurrera doazen zeharbideetatik. Andreaitz igo ondoren, gandorra desitxuratu egiten da eta aurkintza zail samarrean aurkituko gara, tontorrez eta trokez josia, non lerrorik imajinatu nahi izatea ere zorabiatzeko zeregina bihurtzen baita. Praktikoena ibilbideko gailurrak ahalik eta biderik erosoenetik igotzea dela ematen du. Adarraitz izenekora igo ostean, Artzanburu hurbilaz ahaztu eta Iferrutz lepo erosora irtengo gara, jadanik larre argiagotatik. Azkenengo kotak zapaldu eta Urbiatik irteten den bide ezagunera irtengo gara Elorrola lepoaren inguruetan.

13. URKILLA-ELGEA: (Arantzazu -) Elorrola lepoa - Zabalaiz (1264) - Bolaleku lepoa - Petrinaitz / Artzanegi (1217) - Burdinkurutz lepoa - Oburu (1240) - Urkilla / Naparbasoko punta (1227) - Zabalegi lepoa - Zabalenegia / Zurkutz (1215) - Zurkutz lepoa - Trango / Zurkur (1183) - Atxuintxa (1169) - Larrangoiti (1126) - Gainlabur lepoa - Keixtuigaiña (1135) - Eizerta lepoa - Artia / Gaboño (1175) - Zepoleku lepoa - Sekillaga (1152) - San Juan lepoa / Portuzarra - Burgamendi / Asnabartza / Utsakoetxena (1082) - Mirubixkar (1048) - Usabakotxena lepoa - Aumategi / Saiturri (1191) - Alabietaxiki - Axkorri (1130) - Angietako arratea - Bizkarlatza (1113) - Leizargarate lepoa - Idazabal / Pagobedeinkatua (1017) - Pagobedeinkatua lepoa - Makatz gain (999) - Arriurdi / Urdingain (875) - Arriurdi lepoa - Urkiza (917) - Urkiza lepoa - Elgeamendi (943) - Elgea lepoa - Arkamo (875) - Usako atxa lepoa - Usako atxa (913) - Troka / Castillo de Landa (893) - Arlaban mendatea.

Etapamalkartsua baina eroso samarra. 27 (+ 4) km, 8:45.

Urbiako sarrera den Elorrola lepotik, Zabalaiz igotzeari ekingo diogu, Urbi bera eta Arantzazuko sakana bereizten duen lerroan gora. Harriz harri goraka eskuak erabilita, berehala erdietsiko dugu tontorra. Komeni da hemendik Petrinaitz tontor leuna ondo identifikatzea, hara joan eta orduan gure lerroa biratu eta mendebalderako norabide argia hartuko duelako. Tontor honetan ur-mugak ikutzen du Araba herrialdea lehenengoz. Hemendik aurrera, mendebalderako norabidea segitzea beste lanik ez dugu izango, hori bai, etengabe gora eta behera ibiliz, desmaila handirik ez baina aspertu arteko tontorrak igo eta jaitsiz. Zorioneko "parke" eolikoan zehar, Aumategi tontorreraino helduko gara. Hemen ur-mugak bizkar berde eroso utzi eta eskuinetara abiatzen da karst ezbaizko eta traketsen, Alabieta izeneko troka eta Deguria ezagunaren arteko gandorretik abiatuz. Hala egingo dugu guk ere, harik eta Bizkarlatza gailurra erdietsiz, berriz ere gailur-lerro nagusira irten arte. Makatz gain izeneko kotan hegoaldeko norabidean abiatuko gara, antena ondolik pasatu eta Elgeamendi koroatzeko. Arlaban mendateko errepedea hurbil dugula, Usako atxa tontorra igo eta pista errazena bilaturik portu ingurura irtengo gara berehala.

14. ARANGIO-ANBOTO: Arlaban mendatea - Maroto (864) - Jarindo (896) - Jarindogoi (695) - Kurtzeta mendatea - San Kristobal (758) - Santikurutz (1109) - Arangio lepoa - Orixol (1128) - Leziaga lepoa - Gantzaga (1010) - Iruatxeta (Ipite) (1062) - Zabalandi lepoa - Anboto (1331) - Agindi lepoa - Saitze punta (1257) - Auntzen Altarea lepoa - Elgoi (1198) - Kurutzeta (1194) - Asuntza lepoa - Kobabaso (963) - Urkiolagirre (1011) - Urkiola mendatea.

Luzera ertaineko etapa, baina malkartsu samarra. 22 km, 7:45.

Arlaban mendateko bentatik abiatuta, pistetan gora Maroto eta Jarindo tontorrak erdietsiko ditugu zailtasunik gabe. Ostera ere pistak jarraituz, Jarindogoi ondolik pasatu eta Legutianotik Ara-

maiora igarotzen den errepidera irtengo gara Kurtzeta mendatetik hurbil. Beste aldetik, Oletara doan errepidean gora abiatuta, segituan utziko dugu asfaltoa San Kristobal ermitara hurreratzeko. Jadanik gandor argian gora, paisaia geroz eta malkartsuagoetatik helduko gara Santikurutz ermitaxora eta Orixol tontorrera. Bide argia segiturik, batzuetan mendebaldeko maldan zehar, ailegatuko gara Leziaga izeneko lepo zelai zabalera. Handik ostera ere harrietan gora, ur-muga den gandorra segitzeko pasaleku errazanak bilaturik, berehala igoko gara Iruatzeta (Ipizte) gailurrera. Tontor nagusia baino aurrerago, haitz harro bat igoko dugu, Zabalandiko pentzei bista ematen diena. Hemendik ezkerreko korridore batean behera, kontu handiaz eta eskuak erabiliz, helduko gara mendebaldeko maldako basotik datorren bide nagusira. Berau jarraiturik irtengo gara basotik Zabalandiko larreetara. Hala sar-tzen gara lehenengo aldiz Bizkaiko lurretan. Anboto haitz tentea, aurrez aurre eraso behar dugu, ahal delarik Arrazola aldera begira dagoen ezploitik ez oso urrun. Era honetan, eskuak eta oinak baliatuz helduko gara tontorrera. Gailurreria segituko dugu kontu handiz, haitzik haitz Kurutzeta izeneko gailurreraino. Hemen utziko dugu gandorra eta malda tente belartsuetan behera jaitsiko gara Asuntzako zelaietara. Hainbeste orduren ostean Urkiolagirreko aldapa xumea gogorregi irudituko zaigun arren, berehala helduko gara Urkiolara. Gezurra badirudi ere, Urkiola dugu ibilaldi oso honetan iparralderen dagoen puntua, Zuberoa edo Nafarroa Behereko edozein baino latitude handiagoa duelarik.



Urkiolako Santa Apolonia ermita, iturria ondoan duela (14-15 etapak)

15. SAIBI-ALTUN: Urkiola mendatea - Saibitxiki (860) - Saibi (946) - Dantzaleku lepoa - Dantzaleku (741) - Arginzoriz (729) - Zumeltzagana - Pagobakar (687) - Altungana (765) - Zubilarra (722) - Barazar mendatea.

Etaparik laburrena, zailtasunik gabea, baina Zumeltza aldean anbiguo samarra. 10 km, 3:30.

Urkiolatik Saibi aldera abiatuko gara ur-muga ongi ibiltzeko, ondoko pista erosoaren tentaldiari behin eta berriz uko eginik. Saibi erdietsi ostean, hegoaldera joko dugu, basoan sartuta lepoa pasatu eta Dantzaleku izeneko tontorra igotzeko. Norabidea aldatu eta Arginzoriz tontorrean ostera ere hegoalderako gailurreriari ekingo diogu. Arkaola baserri ondotik pasatuz pare bat kota gainditu eta Zumeltzagana ondoko zelaietara irten gaitzke, edo azken hauen azpitik zeharka jaisten den balkoitik apurka apurka behera joan, edonola ere bide zarratuetan ibiliz. Bere 596 m.rekin, Zumeltzagana izeneko aurkintza hau dugu ur-mugako ibilaldi osoko punturik bajaena. Errepidea zeharkatuta, pistetan gora edo ondoko gailurreria errazetatik, helduko gara Pagobakar tontorrera. Gailurreria honek berak, hegoaldera biratuz Altungana tontorrera eramango gaitu, ur-muga jarraitzeko pista uzten dugularik, Zubilarra igo eta berehala Barazar mendateko errepidera helduko gara.



16. GORBEIA: Barazar - Abaroa (653) - Abarakorta (667) - Saldropo - Bastalarra (864) - Arralde (945) - Atxirpe (917) - Atxuri (941) - Pozuebagi (941) - Arimegorta (912) - Arimegorta landetako lepoa - Aldamin (1376) (Gorbeia (1481) ur-mugatik kanpo gelditzen da hurbil) - Lapurzulo (1166) - Egiriñao lepoa - Gatzarrieta (1177) - Gatzarrieta lepoa - Artalarra (1163) - Arrabako atxa (1166) - Mandobide lepoa - Gorosteta (1261) - Ipargorta (1235) - Austegiarbin (1082) - Austegiarbin lepoa - Argindegorta (1089) - Odoriaga (1245) - Araneko arri (1017) - Nafarkorta (1020) - Burbona (935) - Astaez (919) - Karamuzabal (839) - Lekandai atea - Txintxularra (832) - Santakrutz (786) - Altube mendateko 23. km.

Etaparik luzeena, zenbait aurkintza malkartsu eta anbiguoduna, adibidez Altube gaina. 35 km, 9:55.

Barazar mendatetik Saldropo aldera abiatuko gara baina Abaroa eta Abarakorta tontor izkutuak bilatuko ditugu. Saldropoko zelaietan hegoaldera biratuko gara Bastalarra eta Arralde gailurrak gainditzeko. Ondoren, Arimegortako zelaiek Barazarrera begira duten balkoian zehar abiatuko gara, harik eta londiagorta urtegia ikusten



■ Gorbeia eta Aldamin. Ur-muga ezkerreko arroketan behera dator (16 etapa)



■ Urduña gaineko Frailea (18 etapa)

■ Txarlazon Antiguako Andra Maria (18 etapa)

■ Urduñako ziuatzea eta Gorobel mendilerroa (18 etapa)

ARGAZKIAK: PATXI GALE

dugun arte. Orduan Aldamin erasoko dugu aurrez aurre. Zenbait aterpetatik pasatu eta Aldamingo ormaren azpian gaudelarik ezkerretara joko dugu, ahal denean, gailur honen ekialdeko ezproia diren harrietara ertzetik bertatik igotzeko. Eskuak erabiliz, itxura zail baina hainbestearainokoak ez diren pasoak gaindituta erdietsiko dugu Aldamin tontorra. Ondo ondoan Gorbeia erraldoia utziko dugu, isuralde mediterraneoan dago-eta. Gu, harrizko gandorra jarraituz, Egiriñao ondoko zelaietara jaitsiko gara. Ondoren Aldabe igarolekura hurreratuko gara oso bide erabiletatik eta, Arrabarako zeharbidean abiatu ez baina Gatzarrieta tontorrera igoko gara ahalbait zuzenen. Gora helduta, Arrabako landa eskuinean uzten duen gandorra segituko dugu tontorrik tontor, harik eta Mandobide lepoaren inguruetan pagadian sartuko garen arte. Baso barrutik eta haitzez haitz goraka, Gorosteta tontorra erdietsiko dugu. Pagadi harritsutik irten eta Ipargorta pasatuta, larreetan behera abiatuko gara Austegiabin aldeko gandorra ahalik eta ondoenik segituz. Aldapan gora pistatik hurbil, Odoriagara igoko gara. Arna gailurreria utziko dugu berehala eta Araneko arri izeneko hilarriaren ondotik pasako gara, Bizkaiko lurrei agur egiten diegula. Pistetatik nahiz aurkintza landaretsuetatik, gailurreria nagusia segituko dugu hegoalderantz. Burbona izeneko gailur altuena erdiesteko, pista utzi eta malda zarratu batean gora igoko gara. Buzoia mendabalderagoko tontorrean dago eta hemendik hegoaldera abiatuko gara, biderik errazena segituz, harik eta Santakruz izeneko tontorretik, ahalbait zehatzen, Beluntza ondoko Altube mendatean errepidera irten arte. Lepo kokagaitz hau Baranbio eta Kuartango banatzen dituen mendatea izango litzateke, Burgosko autobideak zeharkatzen duena alegia.

17. URKABUSTAIZ: Altube mendateko 23. km - Izarrarako errepideko 23. km - 25. km - Beluntza - Pietateko Andra Maria basiliza - Izarra ikastetxea - Goiuriko tunela - Ondona baserria - 803 kota (Ur-mugak ez du erdiesten Alto del Corral (842)) - Fortuna putzua - Arangatxa (923) - Gillarte (845) - Erea / Peña Alta (1110) - Alpartiza (1021) - Ramalejo (1004) - Arando / Monte Santiago (943) - Urduñako mendatea.

Eta luzea baina eroso, zalantzazko zenbait leku zeharkatzen dituen arren, bereziki Altube aldea eta Nerbio ibaiaren iturburuaren ingurua. 33 km, 8:10.

Hasierako aurkintza honetan ez dago mendi-giro handirik. Auto-pista ondotik segituz, zubi bat zeharkatu eta Beluntza ondora helduko gara. Herria pasatuta, eskuinean bide adar bat pasatzen da Pietateko Andra Mariaren basilizaren ondotik eta hemendik mendi-adarra segi daiteke kotaz kota, Izarra ikastetxe zaharraren instalazioetatik igaroz. Goiuriko tunelaren gainetik pasa eta azken tontor bat igoko gara Ondona baserri aldera jaitsi aurretik. Pista zehatzenak bilatuta, Alto del Corral ondoko tontorra erdietsiko dugu eta apurka apurka Nerbioi ibaiaren iturburuaren gainean dagoen Fortuna putzuko lepora helduko gara. Hegoalderantz ekingo diogu aldapari eta Arangatxa tontorraren inguruan irtengo gara goilautadara. Hegoaldera segituz, Artxua eta Luna aldeko ibarrera asomatuko gara San Antonio eta Trinitatearen ermiten aldean. Datu bitxi moduan, esan dezagun leku hau dela ur-mugarren ibilaldi osoko punturik hegoaldekoena. Aurkintza anbiguo honetan ur-muga ondo jarraitzeko, badirudi soroen artean Gillarte izeneko erpina erdietsi behar dela, ondoren hemendik argiago bihurtzen den eta Erea tontorrera abiatzen den gandorra tontorrez tontor jarraitzeko. Hala helduko gara Ereara, Burgosko probintziako mugan jadanik. Aurrerantzean berau hurbildik segituko dugu. Hemendik erliebe mantoak erakutsiko digu zein den isuraldeen muga. Hala, txilarren artean helduko gara Arando mendiaren ingurura. Tontorra gure eskuinera utziz (buzoia eta begiratokia are urrunago daude) eta alanbre-hesiak oztopo direla, Urduñako mendatera aterako gara segituan, Txarlazorako pista errepidetik irteten den puntuaren inguruetan.

18. GOROBEL: Urduñako mendatea - Solaiera (1039) - Ateabal (1027) - 1078 kota (Ur-mugak eskuinetara uzten du Bedarbide (1041) tontorra) - Mojón Alto lepoa - Zankorta bizkarra - La Lastrilla putzua - La Lastrilla (1132) - La Pasadilla putzua - Mostajo (1125) - Piedra Picada (1098) - El Horcón (1032) - La Pantorra (975) - Angulo mendatea.

Eta luzezka baina eroso samarra. 26 km, 5:50.

Urduñako mendatetik Txarlazora abiatzen den pistatik hasiko gara ibiltzen, baina berehala utzirik eskuineko balkoira igoko gara. Hala ere, pista berriz zeharkatuta, Gorobel mendizerran barruratuko gara Txarlazo tontor ezagunaren hegoaldeko pasatu eta baso harritsuan gora, iparrerantz jo eta Solaiera gailurra erdiesteko. Hemendik aurrera, baso eskasiak lagunduko digu bidea. Bedarbidetarra pasatu (buzoia beheragoko balkoian dago, Urduñara begira) eta Mojón Alto izeneko lepoakara helduko gara. Bizkar mantoa igoz, Zankortan gora La Lastrilla gailurrera helduko gara eta handik mendebaldeko norabide zuzena hartuko dugu, eskuine-



Azkenengo zati bat gelditzen da Euskal Herriko ur-mugan, hemen deskribatzen ez duguna. Angulo mendatetik gure Ierroa La Peña izeneko mendizerrako gandorretik abiatzen da: Gurdietza (1116), Castro Grande (1086), Tres Dedos (1167), Peñalba de Lérdano (1244) eta Peña Mayor (1256) tontorretan zehar. Handik El Cabrio mendatera jaisten da eta kontrako maldan gora Ordunte mendizerrara igotzen da Zalama (1336) baino 500 bat metro ekialderago. Hemendik Bizkaiko muga jarraituko luke tontor hori igo eta Kantabria-Burgos-Bizkaia elkartzen dituen mugarriraino heltzeko, behin betiko Euskal Herria atzean uzten duela. Hemendik Los Tornos mendatera nahiz Agüera de Montijako San Pelayo auzunera jaits daiteke azkar. Zati oso hau bi edo hiru etapatan burutu daiteke, helburua ariketa fisikoa edo aurkintza hauek modu erosoan ezaizteaz gero, norberak erabaki beharko duela.

ra Somo eta Eskutxi tontor altuagoak utzita. Mostajora heldu eta malkarrak erraz bajatuko ditugu. Gure aurreko zelai leunak, Mandagua iturriaren ondoan, dira Euskal Herrian dauden azkenengo aurkintzak, jadanik Burgosen barneratuko gara-eta. Eskuinera utziko ditugu larreak eta lepoaren ondoren El Horcón gailurrera helduko gara. Jadanik hurbil suma daitekeen Angulorantz abiatuko gara zuzen, ibilbideko azkenengo tontorra gainditu ostean, La Pantorra alegia. Azkenengo jaitsiera erraz batek, eskuinean otsozulo eder bat duena, eramango gaitu Angulo mendateko errepede zaharrera, tunel berriaren gainean.

Eta hau da dena. Ohar xume hauek ibilaldia egin nahi duenarentzat lagungarri izatea nahi genuke. Horretan menturatzen bazara, irakurle mendizale hori, "gogora ezazu mendiok gure herrialde txiki eta apurtuaren bizkarrezurra direla, gure herria jaiotzen ikusi zuen eta orain beraren eraldaketari begiratzen dion eszenatokia direla. Bestalde izan zaitez zeure presentziaren eta ibiliaren ibiliaz daramazun norabidearen jakitun. Edozelan ere, goza ezazu ibilaldiaz atzean uzten dituzun mendiak zure iragateak markaturik geratzen ez direlarik". □



RESUMEN

EN el presente artículo te ofrecemos una descripción de la línea geográfica que discurre siempre por crestas cimera, divide las vertientes atlántica y mediterránea del País Vasco. Esta "travesía de la divisoria de aguas" de Euskal Herria recorre en consecuencia las sierras y macizos montañosos que configuran el centro orográfico de nuestro país, de modo que realizarla a pie en su integridad, es un reto atractivo para todo aficionado a la montaña que tenga interés en conocer nuestras cimas más interesantes. El recorrido fue llevado a cabo por montañeros y montañeras del Grupo Alpino Aldatz Gora de Bilbao, entre el otoño de 1998 y la primavera de 2001, haciendo coincidir la culminación del recorrido con la celebración del 75 aniversario de su fundación. A fin de poderlo llevar a cabo con

una mínima comodidad, se dividió el recorrido en 18 etapas más o menos largas o dificultosas, pero todas susceptibles de ser realizadas en un día de marcha, con comienzo y final en algún lugar accesible en vehículo. Es una propuesta confeccionada con notoria minuciosidad, que te ofrecemos desde aquí animándote a que afrontes esta aventura. "Recuerda también que estas montañas son la columna vertebral orográfica de nuestro pequeño y roto país, que son el escenario que vio nacer a nuestro pueblo y que ahora contempla su transformación. Sé consciente además de tu propia presencia en él y de la dirección en que caminas. En cualquier caso, disfruta del recorrido sin que las montañas que dejas atrás queden marcadas por tu paso". □